

2017/07/20an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO
BILKURA URGENTEA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA URGENTE
DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN.
Día 20/07/2017

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko uztailaren 20an, arratsaldeko 19:25ean, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkura urgentean, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran Garcia jauna.

En Eskoriatza, siendo las 19:25 horas del día 20 de julio de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria urgente bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Edorta Barandiaran Garcia

1.- OSOKO BILKURAREN PREMIARI BURUZKO ERABAKIA

Honako bilkura hau justifikatu duten arrazoiak azalduta, Udaltzak aho batez horren premia BERRETSI du.

2.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMAREN BARRUAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIETAKO 13. ARTIKULUAREN AZKEN PARAGRAFOA INDARRIK GABE UZTEA.

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMAREN BARRUAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota alegazioarik aurkeztu gabe, 2017ko ekitaldiko deialdia onartu zen 2017ko ekainaren 20ko Alkate erabakiz.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko ekainaren 27an (122. zenbakia).

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programaren barruan diru laguntzak emateko oinarrietako 13. artikulua azken paragrafoa indarrik gabe uztea, eta ondorioz, kentzea. Paragrafo horrek honakoa dio hitzez hitz:

Edozein kasutan, 16 urtetik beherakoei zuzendutako jardueraren eta ahozko zein idatzizko komunikazio guztiak (hitzaldi, ikastaro, idatzi, etab.), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira. **Bigarrena.-** Aldaketaren ondoren, 13. artikulua honela gelditzen da:

13. artikulua. Euskararen erabilera

Diruz lagundutako jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako komunikazioak Eskoriatzako/ EAEko herritarrei zuzenduta daudenean, erakunde onuradunaren obligazio izango da baldintza hauek betetzea:

— Idatzizko komunikazioak (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka, ohar...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzizko dira. Ele bitan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

— Ahozko komunikazioak ere (aurkezpen saioak, sentsibilizazio hitzaldiak...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira, eta betiere, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- ESKORIATZAN GARATUKO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIETAKO 12.3.f ARTIKULUAREN AZKEN PARAGRAFOA INDARRIK GABE UZTEA

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartu zituen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota alegazioarik aurkeztu gabe, 2017ko ekitaldiko deialdia onartu zen 2017ko ekainaren 20ko Alkate erabakiz.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko ekainaren 27an (122. zenbakia).

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarrietako 12.3.f artikulua ondorengo paragrafoa indarrik gabe uztea, eta ondorioz, kentzea:

16 urtetik azpikoei zuzendutako mezu guztiak (idazki, hitzaldi, eta abar), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira.

Bigarrena.- Aldaketaren ondoren, aipatutako artikulua honela gelditzen da:

12. ONURADUNAREN BETE BEHARRAK.

Onuradunak honako bete behar hauek izango ditu:

- a) Jarduera egitea edota diru laguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
 - b) Eskoriatzako Udalean egiaztatzea bete direla diru laguntza emateko eta erabiltzeko baldintzak, jarduerak eta helburuak.
 - c) Udalak derrigorrez egin beharreko egiaztatze jarduerak ez oztopatzea.
 - d) Eskoriatzako Udalari jakinaraztea elkarteak diruz laguntzen den jarduerarako jasotako beste edozein diru laguntza.
- Jakinazpen hori jasotako beste edozein diru laguntzaren berri izandakoan egin beharko da, eta, betiere, Udaletik jasotako diruaren erabilpena justifikatu aurretik.
- e) Jasotako diru laguntza zertan erabili den justifikatzeko dokumentuak gutxienez bost urtez gordetzea.

f) Behin Udalak jakinarazita diru laguntza emango zaiola, informazioa ematerakoan, publizitatea edo propaganda egiterakoan zein diruz lagundutako jarduerak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

1. Eskoriatzako Udalak lagundutakoa dela jaso beharko da.
2. Ez da irudi eta hizkera sexistarik erabiliko.
3. Euskara bakarrik erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna. Edozein modutan ere, euskarazko testuen zuzentasuna bermatzeko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

g) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea.

h) Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.

Pertsona edo erakunde eskatzailea joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitekeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIETAKO 12. ARTIKULUAREN AZKEN PARAGRAFOA INDARRIK GABE UZTEA, ETA ONDORIOZ, KENTZEA:

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK hasiera batean onartu zituen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota alegazioarik aurkeztu gabe, 2017ko ekitaldiko deialdia onartu zen 2017ko ekainaren 19ko Alkate erabakiz.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko ekainaren 27an (122. zenbakia).

Berlaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gizarte zerbitzuetan diharduten elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituzten oinarrietako 12. artikulua ondoz ondoz paragrafoa indarrak gabe uztea, eta ondorioz, kentzea:

Edozein kasutan, 16 urtetik beherakoei zuzendutako jarduerak eta ahozko zein idatzizko komunikazio guztiak (hitzaldi, ikastaro, idatzi, etab.), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira.

Bigarrena.- Aldaketaren ondoren, aipatutako artikulua honela gelditzen da:

12. artikulua. Euskararen erabilera

Diru laguntzaren helburu den jarduerak, proiektu edo programari buruz herritarrei zuzendutako komunikazioetan ondoz ondoz izango dira kontuan:

— Idatzizko komunikazioak (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka, ohar...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Ele bitan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna beti. Testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

— Ahozko komunikazioak ere (hitzaldiak, zabalkunde kanpainak prestakuntza ikastaroak...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira, eta betiere, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Eta beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost direnean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1º.- PRONUNCIAMIENTO SOBRE LA URGENCIA DE LA SESION

Explicadas las razones que han justificado la presente sesión, por unanimidad el Pleno acuerda RATIFICAR la urgencia de la misma.

2º.- DEJAR SIN EFECTO EL ÚLTIMO PÁRRAFO DEL ART. 13 DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DENTRO DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN CON LOS PAÍSES EN VÍAS DE DESARROLLO .

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 27 de abril de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DENTRO DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN CON LOS PAÍSES EN VÍAS DE DESARROLLO .

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de mayo de 2017, y pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, por Resolución de la Alcaldía de fecha 20 de junio de 2017 se aprobó la convocatoria correspondiente al ejercicio 2017.

La convocatoria fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa N.º 122, de fecha 27 de junio de 2017.

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dejar sin efecto y, en consecuencia, suprimir el último párrafo del art. 13 de la Bases para la concesión de subvenciones dentro del programa de cooperación con países en vías de desarrollo, que literalmente dice:

En cualquier caso, todas las actividades y comunicaciones (tanto orales como escritas) dirigidas a menores de 16 años (charlas, cursillos, escritos, etc.) se realizarán exclusivamente en euskara, salvo excepciones.

Segundo: Tras la modificación, el contenido del artículo 13 queda de la siguiente forma:

Artículo13. Uso del euskera

La entidad beneficiaria deberá cumplir las siguientes condiciones, en cualquier tipo de comunicación, relativa a la actividad, proyecto o programa objeto de subvención, que vaya dirigida a los vecinos de Eskoriatza/ de la CAV:

— Toda comunicación escrita (carteles, anuncios, programas, libros, avisos...) se redactará en euskera o en euskera y castellano, dando siempre prioridad al euskera mediante la ubicación (encima del castellano) y el tamaño. Para verificar la correcta redacción se podrá solicitar la ayuda del Servicio Municipal de Euskara.

— *Las comunicaciones orales (presentaciones, charlas divulgativas de sensibilización...) también deberán ser en eukera o en euskera y castellano, dándole siempre prioridad al euskara. Para ello, se dirá en primer lugar el mensaje en euskara.*

Tercero: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3º.-DEJAR SIN EFECTO EL ULTIMO PÁRRAFO DEL ART. 12 .f.3 DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA PROGRAMAS Y ACTIVIDADES CULTURALES QUE SE DESARROLLEN EN ESKORIATZA.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 27 de abril de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las Bases para la concesión de subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza.

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de mayo de 2017 y pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, por Resolución de la Alcaldía de fecha 20 de junio de 2017 se aprobó la convocatoria correspondiente al ejercicio 2017.

La convocatoria fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa N.º 122, de fecha 27 de junio de 2017.

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dejar sin efecto y, en consecuencia, suprimir el siguiente párrafo del art. 12.f.3) de las Bases para la concesión de subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza.

Las actividades y mensajes (charlas, escritos, etc) dirigidos a menores de 16 años deberán ser en euskera, salvo excepciones.

Segundo: Tras la modificación, el contenido del citado artículo queda de la siguiente forma:

12. OBLIGACIONES DEL/A BENEFICIARIO/A

Las obligaciones del/a beneficiario/a son las siguientes:

- a) Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.
- b) Justificar ante el Ayuntamiento de Eskoriatza el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos para la concesión y uso de la subvención.

c) No entorpecer las actuaciones de comprobación a realizarse obligatoriamente por el Ayuntamiento.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Eskoriatza cualquier otra subvención que haya sido otorgada a la asociación para la misma actividad que ahora se subvenciona.

Esta comunicación se deberá realizar nada más se tenga conocimiento de ello y, siempre, antes de justificar la utilización de fondos recibidos del Ayuntamiento.

e) Conservar durante cinco años como mínimo los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos.

f) Una vez notificada la concesión de subvención por parte del ayuntamiento en todas las acciones de información, publicidad y propaganda así como en el desarrollo de las actividades subvencionadas:

1. Se deberá hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Eskoriatza.
2. Se utilizará una imagen y lenguaje no sexista.
3. Se tenderá a utilizar únicamente el euskera. En caso de que se utilicen las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskera. En cualquier caso, para garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera, se podrá solicitar la ayuda del Servicio Municipal de Euskera.

g) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada.

h) Cumplir con la normativa vigente en lo referente a organización de actividades y espectáculos públicos, así como el resto de la normativa, estatal o autonómica, que sea aplicable al ámbito de actuación que se trate.

La persona o entidad solicitante será considerada como única organizadora de la actividad subvencionada, siendo por tanto la responsable civil única frente a cualquier reclamación patrimonial que pudiera derivarse del normal o anormal desarrollo de dicha actividad y quedando en todo caso el Ayuntamiento exento de eventuales reclamaciones.

Tercero: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4º.- DEJAR SIN EFECTO EL ÚLTIMO PÁRRAFO DEL ART. 12 DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN SERVICIOS SOCIALES.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 27 de abril de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las BASES QUE REGULAN LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN SERVICIOS SOCIALES.

2017 / 07 / 20
Ez Ohiko Osoko Bilkura Urgentea
Pleno extraordinario urgente.

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de mayo de 2017 y pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, por Resolución de la Alcaldía de fecha 19 de junio de 2017 se aprobó la convocatoria correspondiente al ejercicio 2017.

La convocatoria fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa N.º 122, de fecha 27 de junio de 2017.

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dejar sin efecto y, en consecuencia, suprimir el siguiente párrafo del art. 12 de las Bases para la *concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales*.

—Todas las actividades y comunicaciones (tanto orales como escritas) dirigidas a menores de 16 años (charlas, cursillos, escritos, etc.) se realizarán exclusivamente en euskara, salvo excepciones.

Segundo: Tras la modificación, el contenido del citado artículo queda de la siguiente forma:

Artículo12. Uso del euskera

En comunicaciones dirigidas a la ciudadanía y relativas a la actividad, proyecto o programa objeto de subvención, se tendrá en cuenta lo siguiente:

— Toda comunicación escrita (carteles, anuncios, programas, libros, avisos...) se redactará en euskera, o en euskera y castellano, dando siempre prioridad al euskara. Para verificar la correcta redacción se podrá solicitar la ayuda del Servicio Municipal de Euskara.

— Las comunicaciones orales (conferencias, campañas divulgativas, cursos de formación ...) también deberán ser en euskera, o en euskera y castellano, dando prioridad al euskara.

Tercero: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:35 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.